

Kulturarako espazio eta zerbitzu barriak egongo dira Lemoan

12. orrialdea

Kathmandun dago Alex Txikon Everest-era igoteko asmoz

Oxigeno artifizial barik Everest-era (8.848 m.) neguan igoteko asmoz, abiatu zuen Alex Txikon lemoztarra abenduaren 25ean Kathmandura. Espedizioak martiaren 20ra arte iraungo dauzala aurreikusitako dabe.

11. orrialdea



Urrezko Aizkolarien Kopa eta Bizkaiko Txapelketa Atutxarentzat

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

265

2017ko urtailaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Aske geratu da Mikel Zuloaga

Aske baina kargupean itxi ebazan epaileak Mikel Zuloaga zeanuriztarra eta Begoña Huarte nafar ekintzaileak abenduaren 30ean. 2.000 euroko berme bana ezarri eta karguak mantendu ditu epaileak.

Abenduaren 27 eta 28 arteko gaubean Greziako poliziak Zuloaga eta Huarte atxilotu ebazan, Euskal Herrira, legez kanpo 8 errefujiadu ekarten saiatzeagaitik. Epailearen aurrean deklaratu behar izan eban eta honek libre itxi ebazan, "legez kanpoko inmigrazioa sustatzea" eta errefujiaduen segurtasunerako "ardurabakokeria larria" karguakaz.

Espainiako gobernuak hartutako konpromisoak ez ditualako beteten, desobediencia zibileko ekintza bat izan dala eta alkartasunaren aldeko ekintza politikoa dala azaldu dabe Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformatik.

8. eta 9. orrialdeak



Abenduaren 29an Zeanuriko plazan egin zuen konzentrazioa.

ARRATIA

Gabonaldiko atzen ekintzak

Gabonetako programak urte barruko lehenengo egunak be hartzean dauz eta Erregenetako Kabalgatak, Gabonetako Umeen Parkeak, kontzertuak, antzerkia eta beste ekintza kultural batzuk antolatu ditue Arratian.

Urtailaren 5ean, Areatzan, Bedian eta Igorren Kabalgatak egongo dira; Areatzako Bandak kontzertua eskeiniko dau hilaren 8an Igorren; The Loozies taldeak New Orleans-eko R & B soinuak ekarriko ditu Areatzara urtailaren 4an; Lemoako Karabie Gazte-teen, Korto Express Lehiaketako film laburren aurkezpena eta emonaldia egongo da aurreko egunean...

Ikasketetara bueltatu aurretik aisialdirako eskeintza kultural zabala daukie ume eta gazteak egunotan. **5. orrialdea**

ARTEA

Kultur Etxea barriztuko dabe 2017an

2017ko aurrekontuak onartu ziran Artean abenduaren 13an. Inbersinoetarako diru partidarik handiena, 75.000 euro, Kultur Etxea berrantolatu eta atonduteko izango da. Bertan, liburutegia eta KZ Gunea ipinteko proiektua dago. Haurreskolea eskolara eramateko be diru partidea dago. Herriko sarre-rea asfaltetako, likidazioaren osteko superabita erabiliko dabe. 2016ko aurrekontuak egiteko auzo batzarretan egindako 71 proposamenetatik %90 bete dirala dino losu Murgiak, Aldatuz-eko zinegotziak. **7. orrialdea**

DIMA

Proiektu parte hartzaileak indartzeko aurrekontuak

Diman, herriko plaza eta eskolarako proiektu parte hartzaileak eta artxiboaren informatizazioak erango dabez diru partidarik handienak. Bardintasunerako diru partidea %2 igo da, eta euskera eta kultura be indartu gura izan dabez 2017ko aurrekontuetan.

Egoera finantziarioari jagokonean, 2017ko abenduan zorra sarrerren %30 baino txikiagoa izango dala aurreikusten dau alkateak. **5. orrialdea**

Emozinoz betetako argazkiak

www.ibonebarrenetxea.com

622 517 303

ARRATIA KOLOREETAN

ZURI-BALTZETIK KOLOREETARA

Bizi garan uneoroko metamorfosi honetan, batzuek lekua itxi behar izaten deutsee beste batzuei. Jakin badakigun arren askok estimu handian zenduen txokoa zala hau (geuk be hala geunkan), urte barriagaz batera, erabarritu dogun atala da.

Orain artean, zuri-baltzezko begiradeagaz Arratiari begira ibili gara. Ezetuten ez genduzan persona eta istorioak gustura ezetu doguz kolaboratzaileen eskutik (lerrootatik joakie gure eskerrik beroena) eta nondik gatozan ikusteko atzera begiratu ostein, bada garaia non gagozan eta nora goazen ikusteko. Horretarako, Arratia Koloreetan atal barria estreinau dogu. Bertan, alkarteak

egin doguz protagonista, eurak dira-eta, Arratiako herrietan bizia emoten dabenak.

Horregaitik, hileko aleetako baten, eskualdeko alkarteai eskeiniko deutseguz lerrook, euren ibilbide, asmo edo dana dalakoen barri emoteko. Hileko beste alean, Zaztarrak Asti Taldearen gai desbardinaren inguruko gogoeta, eretxi, jolas, eta abarrek beteko dabe txoko hau.

Zaztarrak Asti Taldeak 20 urtetik gora daroaz hezkuntza ez-formalaren potxingoan salto egin eta bazterrak ziprztintzen (euskerea, hezkidetzea, partehartzea...). Ume eta gazte askok ezetuten dabez abuztuan antolantzen dituan udalekuak, baita he-

rrietan aurrera eroaten dabezan ekintza eta proiektuak.

Aldaketak dakarren ohiko urduritasunari, freskotasunez egin-

go deusagu aurre Zaztarrakotakook, eta orain artean gozatu dozuen beste gozatu daizuen gurako geunke.

Ondo etorri eskualdeko alkarteen mundu ugari eta koloretura begiratzeko leiho honetara. Ondo etorri Arratia Koloreetan-era. On egin!



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 2tik 8ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 9tik 15ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Urtailaren 16tik 22ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milkua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



ZEURE BERBEA

Eskubidea izan behar zan delitu baten historia

Abortatzeko eskubidea Euskal Herriko mobimentu feministearen sorreraren ardatzetariko bat izan zan. Talde asko sortu ebazan, hau da, andren antolakuntza eta euren arteko alkarlana bultzatu eban; mugak gainditu eta belaunaldien arteko sareak osatu zituan. Abortu libre eta dobakoaren aldeko aldarria 80ko hamarkadako burruka garrantzitsuenetako bat izan zan eta, nahiz eta hasieran kartzelagaz zigortutako delitua izan, apurka-apurka erakunde legegileak, kaleko mobilizazioakaitik, eskubidea izateko pausuak emon ebazan.

60ko eta 70eko hamarkadetan, Euskal Herriko andren egoera gogorra zan. Euren rola oso zurruna zan: emazte onak eta ama zoriontsuak izan behar ziran. Eta eredu hori derrigorrezko bilakatzeko hainbat arau zein lege ezarri ziran Espainian eta Frantzian. Gorputzaren eta haren funtzioen gaineko eskubideak urratuak ziran etenbarik, eta horregaitik, abortua guztiz debekatuta egoan.

Testuinguru honetan ezinbesteko bihurtu zan autonomia eskuratzeko burrukatzea. Norbere gorputzaren jaube izatea funtsezkotzat hartu eban eta Gure gorputza gurea da! leloa lau haizeetara zabaldu eban. Amatasunak ezin eban derrigorrezkoa izan, hautazkoa baino, eta ama zelana eta

noz izan ebazteko ahalmena bako txarena izan behar eban. Estaduak ezin eban sexualidadea ugalketara mugatu, ezta zigor-kode bidez, askoren osasuna auzitan jarri be.

Arauk aldatu arazoteko eta abortatzeko eskubidea bermatzeko mobimentu feministeak alkartasun sareak sortu ebazan: andrak artatu zituan, baliabideak eskeini eutsezan, antisorgailuen eskuragarritasuna erreztu eban, beste herrialde batera abortatzera lagundu zituan... Etxeko metodoak alde batera itxeko ahaleginean, klinikakaz hartu-emonetan ipinten ebazan, baita autobusak edota hegaldiak antolatu be.

Legez kanpokoa izateak atxilotu ugari itxi eban han-hemenka eta horren adibide argia dogu Basaurin gertatutakoa. 1976. urtean hamaika lagun atxilotu zituen abortatzeagaitik. Horreetako batzuk espetxeratu zituen legeak hala agintzen eban-eta, eta, nahiz eta segiduan baldintzapeko askatasunean kaleratu, sano entzutsua izan zan epaiketea jasan eban.

Urri bigarrenaren 26rako deitu eban, Euskal Autonomi Erkidegoan, estatutuaren bozka izan zan egunean. Horrek herri eta auzoetako kale guztiak oihartzun ozenez bete zituan: Abortua libre eta doban!, Amnistia 11 emakumeentzat! edota hainbeste aldiz errepikatu dan Ez gara inorenak gure gorputza geurea da! Alkartasun haizeak geldiezina irudian: 800 autokulpaizotik gora lortu ebazan eta 18.000 sinadura baino gehiago aurkeztu ebazan epaitegian. Baina *impasse* egoeran geratu zana epaiketa bera izan zan. Ha-ta guzti be, 1983. urterarte egon behar izan eban eba-

tzieren zain, azkenean, danak aske eta kargu barik gelditu ziran arte.

Frantzian 1975. urteaz geroztik legea aldatu zan eta Espainian, ordea, 10 urte gehiago etxon behar izan zan. Lehenengoaren kasuan, abortua epeen baldintzapean onartu zan eta kode penaltik atera eban. Bigarrenean aldiz hiru baldintzaren barruan baimendu zan: haurdunaren osasun fisikoa edota psikologikoa arriskuan egoanean; umekiak malformazio arriskua eukanean; eta bortxa kasuetan. Delitu izaten jarraitzen eban gainerako kasuetan eta honek, barriz be, kale mobilizazioak eragin zituan. Ez, estaduak, ez medikuak, ez epaileak ezin eban amatasunaren gaineko ebatzirik hartu, eta, hainbat talde feministaren ustez, eskubide unibersala izan behar eban.

Bide horretan emon da pausurik azken urteetan. Aspaldi ez dala, eskubide izentau dabe Frantzian eta 2010. urtetik epeetan oinarritutako lege barri bat dago Espainian. Ezin da ukatu aurrerapausu handiak emon dirala. Baina bermatu dau horrek gure gorputzaren gaineko determinazioa guk geuk izatea? Noz eta zelana jaio, eta noz eta zelana hil estaduaren kuestioak dira?

MIREN ARANGUREN

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetan bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Arteztu



Oker dagoana, patxadaz, zuzen ipini ezker, arteztu (artestu, agoskatuta) egin dala esango dogu; egoera makal batetik hobera egiten dauana be bardin. Euskera batuan, zuzendu esaten da. Esate baterako: "Haxeagaz mobidutako argiaren postea arteztuko dabe, hurrean"; edo "beharleku barrian sartu danetik, esan lei gure semeak bizimodua arteztu dauala". Baita be, norberaren itxurea (soineko jantziak, ulea...) eskastxo izan eta ondo jarri dala adierazoteko arteztu aditza erabilten da.

ERETXIA



ARITZ ZUBIATE
Soziologoa

"Egonkortasuna" apurtzeko aukera barriak lantzeko ordua

Urtearen balantzea eta datorrenerako aurreikuspena. 365 egunek emon dabena, 3.500 karakteretan. Ariketa konplikaua behatua izaten dagoan taldekoa danean behatzailea. Objektibidadea ezinezko, bakotxaren ikuspegia botateko aukerea bialituko dogu oraingoan.

"Egonkortasunaren" urtea izan da aurtengoa. Holan definiduko neuke berba baten. Urak nahastu bai, baina "bere onera" bueltatu dirala esango neuke. Egungo mundua ulertuteko kapitala eta bizitzaren arteko lehia erabilten badogu, kapitalaren indarrak garaile jarraitu dabe 2016 horretan. Kapitalismo neoliberal indartsu dago, eta nabarmenak dira ezkerren mugak honeri aurre egiteko.

Podere instituzionala neurri baten behintzat kolokan jarteko balio dabe hauteskundeak. Eta hiru eukin doguz atzen hamahiru hilabeteetan. Eta emoitzeari begiratuta, ikusten dogu egonkortasunaren eta "ordenaren" alderdiak izan dirala garaile. PPren Rajoy garaile Espainian eta Urkulluren EAJ Gasteizeko parlamenturako hauteskundeetan. Eta orain arte bien artean irudikatutako tirabirak leundu egingo dirala emoten dau, EAJren babesa behar dau PPK Madrilen eta Madrilekoen laguntza eskertuko dau EAJk, atzen egunotako AHTren "desizozteak" erakutsi dauan moduan.

"Enplegua" kokatu dau Urkulluk abiatu dan legegintzaldiko erronka nagusi moduan. Badauka nondik ibili, kantidadeari jagokonean eta batez be, kalidadeari jagokonean.

Enpleguaren kalidadea eta egonkortasuna maldan behera doaz. Prekarietatea sektore eta lanpostu guztietara heltzean dan mamua da, eta honek, ez dauka leku handirik diskurso ofizialetan. Prekarietatean oinarritutako "hazkundera" da daukaguna. Gero eta gehiago dira enplegudun pobreak, soldata baidun eta eskubiderik bako enpleguak onartutea beste aukerarik ez daukianak, askotan lanaldi partzialekoak, enpresarioaren nahieran sartutako "aparteko orduak" osagarritzen diranak. Sufrimendu kolektibo zabal (eta gero eta zabalagoan) oinarritzen dan ustezko ongizatea da gurea.

PP eskubideak txikitzen ibili da atzen lau urteotan, bai alderdi sozioekonomikotik (negoziazino kolektiboaren erreformea, pensioena...) zein zibiletik (Mozal Legea). Murrizketak kalte nabariak egin dabez sektore publikoan, osangintzan zein hezkuntzan. Eta murrizketa barriak egin beharko dira Europatik datozan aginduak beteteko. Kaleak piztu beharko leukez murrizketa ziklo barriak.

Bost urte egin dauz Aieteko adierazpenak aurten. Bost urte ETAK jarduera armatua betirako itxeko asmoa erakutsi ebanetik. Aurrez aurre topau dauz gobernuen itxikeria eta errepresinoa. Luhusoko operazioaren ostean dagoan desarmatze zibil prozesuak eta EPPKren eztabaida prozesuak egoera desblokeetako aukerea emon ahal dabe.

Kanpotik be ez datoz albiste onak. Askatasun murrizketak jihadismoaren atxakiapean, Trump garaile AEBetan, Austrian ultraeskuina gobermura heltzean, Frantzian Le Pen dago beste horrenbeste lortzean, gorrotoaren diskursoak aurrera doaz jente langilearen artean. Bien bitartean, ezkerrek gai honeei patxadaz erantzuteko zailtasun itzelak daukaz. Kezkarako motiboak badagoz, baina neurri berean, badagoz alternatibak eta bestelako ereduak babesten dabezanak.

Panorama baltza margotu doguna. Gabonetako sindromearen ondorioa edo. Baina egia zor, aitortu beharra dago hainbat ekimen eta proiektu daukagula gure herrietan gristasun honeri kolore emoten deutsienak. Mundua, beste modu batekoa izan daiten beharrean dagozanak, alkartasuna ardatz, bestelako hartu-emonak eregiten dabizen sareak, bizitza ipinten dabenak erdigunean. Bizitza, bere osotasunean.

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



PILI ALVAREZ

Sinistu!

Zergaitik adinbako aurkako sexu abusuari buruzko kartelak kendu izan dira, behin baino gehiagotan, herriko plazatik eta ondoan egozan beste kartel batzuek bertan jarraituten dabe? Zer da molestetan dauana? Zer da ikututen gaituana? Zer da ez jakuna gustetan? Zergaitik ez dogu begibistan euki gura holango kartelak umeen jolaslekuaren aurrean? Interpelautu sentiduten gara? Zer egingo geunke guk halako kasuren baten barri jakingo bagendu?

Aitatzen ez dana ez dala existiduten dinoe eta holan dala emoten dau. Adin txikikoen kontrako indarkeriaz ez dogu berba egiten baina egon badago eta lehenengo pausua arazo honen konponbiderako berba egitea da. Horren inguruko, gero eta ekimen gehiago dagoz; kartel horreek, barbarako, edo zemendiaren 25ean Bilgune Feministak "Ikusi-makusi, zer ikusi? Haurren aurkako indarkeria patriarkala" kanpainea. Bazan garaia esparru publiko "zabalean" arazo

hau mahai gainean ipinteko.

Ikerketen arabera, eraso horreen %70-80a familia giroan edo haurren konfiantzako inguruan gertatu dira. Hurreko gizon horreek euren podere posizioa aprobetxetan dabe, umeak nahastuteko eta euren onurako dan hartu-emona ezarteko, argumentu faltsuakaz, umeen konfiantzea aprobetxetako. Hau ez da kasualidadea, ez dira kasu aislatuak arazo soziala baino. Izan be, ikerketen arabera, 17 urtetik beherako nesken %23-25ak eta mutilen %10-15ak sexu gehiegikeriak jasan dabez.

Zenbakietatik harago nork ez dau holango kasuren bat hurretik ezetuten? Hasi geintekoz, nagusien artean, honetaz berba egiten arazo hau sozializetako eta ikaspenak aterateko umeai langundu ahal izateko. Baita, bildurak, tabuak eta biktimen zama gainetik kentzeako.

Horretarako, inguru goxo eta segurua sortzea ezinbestekoa da, jenteak (umeak eta orain helduak diranak) holango esperientzien gainean berba egin ahal izateko. Entzute aktiboa lantzea be beharrezkoa da; hau da, inongo aurreretiagaz entzutea eta batez be, sinistea! Zoritxarrez, askotan umeen abotsa ez da kontuan hartzean, umeen fantasia edota asmakizunak dirala argudiatzen dalako. Segidu daigun "ikusi-makusi" jokora olgetan eta begiak zabaltzen!

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

Gaia jarrita: "2017a"

1

Ohartu barik bi mila eta hamazazpi heldu da ta hementxe nago aspertu modu topikoei tiraka: Errutina lez dekot urteko lehen eguneko resaka ta propositu ezberdin batzuk buruan dodaz bueltaka.

2

Gabon ostean pisu kontuan jarri gara nahiko grabe hori dala ta gimnasiaora apuntatu naz osterata be hala ta guzti ez dao prisarik noa suabe-suabe zeezer argaldu gura dot baina izerdirik bota gabe.

3

Tabakoa da falta jatana bizio danak hartzeko eta pozik nao zigarro barik bizitzen baita hobeto. Baina plan bat dot urte honetan propositu iziteko: Erretan hasi gura dot gero adikzinoa ixteko.

4

Bertso gaineke argazkia be aldatu beharko neuke ikusten baitnaz horren aspaldi, ikusten naz horren gazte ohartu barik doa denbora jada pasau da hainbeste argazki txiki hortan oraindik dodaz hamazazpi urte!

5

Nobela on bat bete dagidan irudimenan maleta. Poesiagaz sentiduten naz ameslaria, poeta. Libururen bat irakurtea ondo legoke tarteka azkenaldian BEGITU baino ez dot irakurten eta.

6

Bi mila eta hamazazpi gura dozuena egin: Zuon ametsak egi eiteko eizue hainbat ahalegin maite eizue zuon burua ta inguruok bardin ahiztu eizue proposituak ta zorionsuak izin.

BEGI TXINDORRA

Neu be pozten naz. 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketeak final freskoa eta txapeldun barri bat itxi deuskuz. Txapeldun barria izan arren, ezaun zaharra be bada Etxahun, azkenengo finalatan ikusi dogu eta.

Halanda be, kartzelara bidean goazela egun horretan buruz buruko-ara pasetako esperantzarik txikerrena be ez eukala esan eustan.

Beharbada kiniela guztietan faborito argi izateak katigituta ez eban saiorik brillanteena egin... baina brillu bako saioetan be Etxahunek bertsoa goitik behera josten dau, eta hori asko da (horretan saiatu eta inoz lortu ez dogunok gagoz testigu).

Gero bai. Bere burua buruz burukoan ikusi eta kateak apurtu ebazanean zuzian joan zan askotan gitxigaitik iges egin deusnan txapel bila.

Bere esana da poz doblea hartu ebala berak irabazi ebalako jente asko poztu zala ikustean.

Urteetan zehar irabazitako karinoaren seinale da hori: bertsolaritzaren sustapenean, herrigintzaren militantzian eta bere egunerokotasunean zintzo portetan danari karinoa.

Eta bai... neu be pozten naz.

Igor Menika Bengoetxea



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Errege Magoen Kabalgatak Areatza, Bedia eta Igorren

Erredakzioa

Urtea aldatu arren, Gabon sasoi ez da amaitu. Areatzan, Bedian, Igorren eta Lemoan, Gabonetako egitarauak urteko lehenengo egunak be hartzean ditue. Batez be, eskola-umeak oporretan dagozan bitartean, kirol eta kultura ekintzak eskeintzeko. Ikusgarri-netakoak Errege Magoen Kabalgatak izango dira.

Areatza

Urtailak 4, eguaztena

19:00etan, The Loozies taldea. New Orleans musika estiloko kontzertua. Udaletxeko Areto Nagusian.

Urtailak 5, eguena

17:30ean, Erregetako Kabalgatea Karpotik hasita. 23:00etan, kontzertuak Gazte-txean. Neke Politikoa eta Guda Dantza taldeak.



Guda Dantza taldea.

Bedia

Urtailak 3, martitzena

10:00etan, urtekera Gabonetako Umeen Parkera. Bueltea 19:00ak inguruan. Bazkaria eta

meriendea eroan behar dira. Begiraleak egongo dira. 0-3 urte bitartekoentzat doban.

Urtailak 5, eguena

18:30ean, Erregetako Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

Igorre

Urtailak 3, martitzena

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxoganen tailerrak aterpean.

Urtailak 5, eguena

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

Urtailak 7, zapatua

17:00etan eta 19:00etan, *Mari Kixkur eta hiru hartzak* antzerkia umeentzat, saio bi. Lasarte Aretan.

Urtailak 8, domekea

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretan.

Lemoa

Urtailak 3, martitzena

20:00etan, Korto Express Lehiaketarako film laburren aurkezpena eta emonaldia Karabie Gaztetxean.

Urtailak 5, eguena

Stankeik taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean.

Urtailak 7, zapatua

12:00etan, truke azokea arkupe-tan.

20:00etan, Pintxo Lehiaketea eta kontzertua Karabie Gaztetxean.

Zeanuri

Urtailak 3, martitzena

11:00etan, Gasteiz ezetu Gabonetan eta zinera urtekera.

DIMA

Proiektu parte hartzaileak indartuko dauz Dimak

Abenduaren 19an, behin-behineko onarpena emonutsean Dimako aurrekontuak EH Bilduren aldeko 5 botoak eta EAJ-PNVren abstentzino 2ak.

Erredakzioa

Boletinean agertutakoan alegazinerik egon ezean, proiektu parte-hartzaileak eta euskera eta kultura indartuko dira 2017an. Aurrekontua orekatua da eta diru sarrerak eta gastuak bardinak dira: 1.458.766 euro. Igaz baino %1 gitxiago. Inbersinoai jagokienean, herriko plaza eta eskolarako proiektu parte-hartzaileak eta artxiboaren informatizazioak eroango dabez diru partidarik handienak. Bardintasunerako diru partidea %2 igon da, eta euskera eta kulturea be indartu gura izan dabez 2017ko aurrekontuetan. Hori dala-eta, Dimesten proiekturako be dirua dago.

Guztira, igaz baino diru gitxiago dago aurten. Izan be, Udalaren diru sarrerarik handiena Foru Aldundiko Udalkutxatik dator eta atzen arteotan sarrera hori jeisten joan da %2-3 inguru. "2016rako jasotako dirutik, BFAk aurreikusten dau Udalkutxara 81.365 euro bueltau beharko jakozala, zerga bilketea espero baino txikiagoa izan dalako. Hori inbersinoetarako daukagun aurrekontuaren %25 da gitxi gorabehera" azaldu deutso BEGIturi Nekane Intxaurtza Dimako alkateak.

Aurrekontuak prestatzeko auzo batzarretan jasotako gaiak kontuan hartu dituela dino Intxaurtzak. "Galdetegi bat be egin

zan internetez eta herriko lokal eta tabernetan eskuz bete ahal izateko inkesta bera zabaldu da. Erantzunak ondo aztertu, eta behin betiko aurrekontuetan egon daitezcan ahaleginduko gara".

Inbersinoetarako partida bariak

Inbersinoetarako 337.877 euro izango ditu Dimak 2017an. Inbersinorik garrantzitsuenak, sa-neamentua eta ur hornidurea (149.456 euro), eskolea (72.000 euro) eta plazako proiekturako (35.000 euro) izango dira.



Dima.

Arratiako Udalen Mankomunitadeari ordainketak, diru-laguntzak, jaiak, Musika Eskoleak eta finantza gastuak be diru partida garrantzitsuak eroaten dabez. AUMeko diru partidan, zaborra eta argiteria ordaintzeaz gainera, Gazteria eta Bardintasun programetarako be badago dirua.

Egoera finantziarioa hobetuzten doa

Alkatearen arabera, ondino ezin da esan Dima egoera finantziario onean dagoanik, finantza gastuak, interesak eta amortizazioak, 105.421 euro eroango dabez-eta, hau da, aurrekontuaren %7,2. Ha-ta guzti be, zorra nahiko bideratuta dago. 2016ko abenduaren 31n 653.000 eurokoa izango da, sarreraren %38, eta 2017ko abenduan zorra sarreraren %30 baino txikiagoa izatea aurreikusten dau alkateak. Momentu horretan Dimako Udalaren egoera finantziarioa normalizauta egongo da.

2011. urtean Udalak eukan zorra 2.439.315,32 eurokoa zan, sarreraren %113.

AREATZA

Erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena sinatu eben alkate eta zinegotzi izandakoak Areatzan

Erredakzioa

Abenduaren 23an, Areatzan 1979-2016 urteen artean alkate eta zinegotzi izandakoen % 90ek, Gure Esku Dago (GED) Batzordeak antolatutako ekitaldian parte hartu eta erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena sinatu eben. Areatzako GED batzordearen ustez, egun horretan "argazki historikoa" lortu zan.

Oraindino ez dago herri galdeke-

tarako fetxarrik. Horren aurretik eta jentearren inplikazioa lortzeako lan handia egin behar dala uste dabe GED batzordekoak. Horretarako aurrera pausua izan zan abenduaren 23koa, "sukalde lana".

Ekitaldia

Ekitaldia Ane Arresek eta Mikel Urrizek aurkeztu eben. Lehenengotik Gure Esku Dago ekimena aurkezteko 5 minutuko bideoa proiektatu zan eta ondoren alkate

eta zinegotziak eszenalekura igon ziran. Tere Etxebarria, Itziar Landa-jo, Iban Gortazar eta Oier Zuluaga zinegotzi izandakoak irakurri eben adierazpena. Ondoren, batutako alkate eta zinegotzi guztiak sinatu eben irakurritakoa. "Baliteke hemen alkartutakoak Euskal Herriarentzako proiektu nahiz egitura desbardinak gura izatea. Beharbada hemen gagozan guztiok ez dogu gure herriarentzako etorkizun bera amesten. Ha-ta guzti be,

Euskal Herria zer izango dan hori zehazteko eta egiteko orduan euskal herritarren erabakia oinarri eta zuztarra dalakoan gagoz danok. Gaur eta hemen horretan danok bat egiten dogu".

Komunikaduren bitartez, zine-



Ekitaldi osteko brindisa.

gotziak Euskal Herria nazinoa dala, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze eskubidea daukala eta euskal herritarrai jagokiela ebatzia hartzea aldarrikatu eben.

Sinatu eta argazkiaren ondoren, Eñaut Intxaurragak idatzitako bertso-kantak abestu eban Areatzako andra talde batek, publikoak lagunduta. Azkenik, brindisa egin eben ekitaldiari amaierara emoteko.

2017rako erronka

2017 urte hasieran GED Batzordearen asmoa Gure Esku Dago Asanblada zabal bat egitea da, herri galdeketea egiteko idea proposatu eta baloretako. Asanblea horretatik lan egiteko lan talde zabala eta anitza ateraten bada, Areatzan galdeketea egiteko data zehaztuko dabe.

ARRATIA

Baliabide gitxiko familietako umeak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko laguntzea izango dabe**Etxebarria AUMko presidentea La Caixa-ko ordezkariakaz.****Erredakzinoa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) lankidetzaz hitzarmena sinatu dau La Caixa Fundazioa-gaz, baliabide gitxiko familietako umei hezkuntza arautuaren osagarriak diran eskolaz kanpoko jardueren gastuak ordaintzen lagundu ahal izateko; batez be, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetan. Hitzarmena 3.600 euro-gaz dago horniduta, eta, akordio honen bitartez, arlo akademikoko eta aisialdiko jardueren gastuak lagunduko dira diruz, batez be.

Ekimen honen helburu nagusia da aukera-bardintasuna sustatzea adin txikien garapen intelektual, fisiko eta sortzailean, ezintasun ekonomikoak garapen hori lortzeko orduan daukan eragina txikituz.

Hitzarmenaren bitartez, eta Aukera Bardineko Adin Txikikoak izeneko Gizarte Laneko programaren barruan, La Caixa Fundazioak 3.600 euro emon deusaz Arratiako Udalen Mankomunitateari, eta Mankomunitateak aitatutako helburura bideratuko dau diru hori. Akordioari esker, Arratiako 10 bat adin txikiek eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dabez urtero; izan be, jarduera horrekin kostu ekonomikoak daukie.

Laguntzok, batez be, hezkuntzaren osogari diran jardueren gastuak ordaintzera bideratuko dira, sendotze akademiko zehatzarako, esate baterako, baita aisialdiko jarduerak ordaintzera be, bardin kirol arlokoak, ludikoak edo sorkuntza arlokoak, antzerkia, musika eta pintorea, beste batzuen artean.

ARRATIA

Jatekoa batzeako kanpaina Artea, Igorre eta Zeanuriko parroketan**Erredakzinoa**

Zeanuri, Artea eta Igorreko hainbat eragile batu da "Batu eta banatu Gabonak 16" kanpaina abian ipinteko. Kanpaina hau egoera administratibo irregularrean dagozan etorkinai lagunduteko da; jatekoa batu, eta etxe bako gazteai bananduteko, hain zuzen be.

Urtailaren 6ra arte Artean eta Zeanurin, eta 8ra arte Igorren, kuxkak ipiniko ditue parroketan

zapatu-domeketan, galtzean ez diran jatekoak jasoteko. Batutakoa, etxe bako gazteen egoitzetara bialduko da, Harribide Fundazioaren bitartez. Harribide Fundazioak Etxebarriko Parrokiaren laguntzeagaz funtzionetan dau.

Ekimen honen inguruan, Zeanuriko gaztetxo taldea, Arteako guraso batzuk eta familia pastoralta eta Igorreko guraso talde bat batu dira.

ARRATIA

Kanpaina solidarioen balorazino ona egiten dabe ekintzaileak**Unai Rementeria Ahal-dun Nagusia tonbola solidarioa bisitetan.****Erredakzinoa**

Gabonaldi honetan, hainbat eragileren ekimenez, ekitaldi eta kanpainak ipini dira martxan, egoera latzetan bizi diranai edo euren alde behar egiten daben alkar-tei lagunduteko. Orokorrean helburuak bete egin dira eta dirua, jatekoa edo jostailuak jasoteaz gainera, egoera gogorak bizi dabezan hainbat kolektibo bisibilizatu eta arazoan gaineko konzientzia sortuten be lagundu dabe.

Lau mila eurotik gora batu ziran azokan errefujiaduentzat

Pozik agertu dira Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformakoak Areatzan egindako bigarren eskuko azokearen balantzea egiterakoan. Jente asko ibili zan merkaduan gauzak erosten eta jeneroa oso merke egon arren, 4.223,62 euro batu ziran.

Balorazino ona egiten dau OEE-ko Kari Basozabalek. "Alde batetik material asko eta ona egon zan, eta bestetik, jente asko erosten". Areatza, Artea, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanurik salmahaiak ipini ebezan batutakoa saltzeko.

Batutako dirua zein alkar-terri

emon eta sobruto materialagaz ea beste azokarik egingo dan ebazteko dago.

Tonbola solidarioa

Igorreko tonbola solidarioan, 3.500 euro jaso ziran. Dirua Igorreko misinolari biren proiektuak lagunduteko izango da. Misinolariak Maribel Egiluz Congon dagoana eta Juanita Agirre Trujillon (Peru) egiten dauana behar dira.

"Igaz eta aurreko urteetan baino apurtxo bat gitxiago batu da aurten. Baina jenteak erantzun dau eta pozik gagoz" adierazo deutso BEGITURI antolatzaileetako batek.

Beñat Etxebarria Athletic-eko jokalaria kamiseteta Luken Le-garretarentzat izan zan.

Gurutze Gorria

Gurutze Gorriak be balantze positiboa egin dau, nahiz eta Arratian behar izan diran jostailu kopurua beteteko, Bizkaiko Gurutze Gorritik zenbait jostailu ekarri behar izan diran. Aurten 76 ume jaso dabe jostailuren bat Arratian. Dana dala, "beti legez, arratiarrak solidarioak dirala erakutsi dabe" Arratiako Gurutze Gorrikoen esanetan.

**Errefujiaduen aldeko bigarren eskuko azokea Areatzan.**

ARRATIA

Ahal-dun Nagusia egon da kudeaketaren barri emon eta proposamenak entzuten Igorren**Erredakzinoa**

Foru Aldundiko kudeaketaren barri emon eta arratiar eta zornotzarren proposamenak entzun ebazan Unai Rementeria Ahal-dun Nagusiak Igorren, abenduaren 15ean. Foru erakundearen kudeaketaren kontu-errazoiak emon, eta saioan parte hartu eben Arratia eta Zornotzako ia 70 biztanleren proposamenak entzun ebazan. Eskualdeetan egingo diran hamar topaketetan hirugarrena izan zan Igorrekoa, zemendian Bilbon eta Basaurin egindakoen ostean.

Bere berbal-dian Unai Rementeriak nabarmendu ebanez, helburu nagusia jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzean lagundutea da; izan be, 2016an Bizkaiko Foru Aldundiak lan arloko 43 proiektu sustatu ditu eta 1.456.580 euroko inbersinoa egin dau eskualdeko enpresa txiki eta ertainai eta autonomoai lagunduteko.

Rementeriak komunikazioetan egindako hobekuntzak be aitatu ebazan: 28 milioeko inbersinoa egin da komunikazioak eta errepideak hobetuteko. Amorebietan, Urdinbideko tuneletan Muxikagazko lotunea ia amaituta dago; Bedian, semaforoak ipini dira Bidekoetean, udalak egindako eskaerea beteteko, eta N-240 errepidean hobekuntzalanak egin ditue.

Bestalde, Rementeriak azpimarratu eban 212.000 euroko inbersinoa egin dala ingurumena jagoteko laguntzetan. Haren ustez, inbersino hori funtsezkoa da Arratiako aparteko ingurunea jagoteko, parke natural bi dagozala kontuan hartuta. Gainera, 52.000 euroko inbersinoa egin da gazteria arloko programa espezifikotetan, eta ia-ia 13 milioe euroko inbersinoa egiten da urtero Bizkaiko Foru Aldundiak Arratia eta Zornotzako beharizan espezifikoak dituen kolektiboentzat dituen 456 goitza-plazetarako.

**Unai Rementeria.**

UBIDE

Herri mantenimentua eta oinarrizko baliabideak ziurtatzeko aurrekontuak



Ubide.

Erredakzinoa

Ubideko Arnasaren 4 botoakaz eta EAJ-PNVko botoagaz, ago batez onartu ziran Ubiden 2017rako aurrekontuak abenduaren 14an. Kontuok, 240.000 euroko diru sarrerak eta gastuak aurreikusten dabez. Aurtengo aurrekontuen oi-

narria igazko aurrekontuak dira eta ez dago partida barririk.

Herri txikia izanda eta udal kontuak diru askorik mobidu ez arren, Ubideren egoera finantziario eta kudeaketa "bikaina" nabarmendu izan gura dau Joxan Pagola Ubideko alkateak. "Nahiz eta gure gaindiko erakundeak zailtasunak

areagotzen dituen herri txikien kudeaketan: gastu mugak, Udalkutxaren likidazio negatiboak, gero eta dirulaguntza gutxiago, Ubidek azken urteotan erakutsi dau kudeaketa on zein bikaina egin daitekela apaltasunetik eta zintzotasunetik".

Alkatearen arabera, Ubiden herriaren mantenua eta oinarrizko baliabideen mantenimentua dira aurrekontuen motoreak. Igaz, Hiri Antolamenturako Plan Orokorra hasi eben eta horregaz jarraituteko asmoa adierazto dau.

Herri batzarra

Aurrekontuak modu parte hartzailean egiteko, herri batzar bat egiten dabe. Gehienbat kontuen barri emoten da han, eta aurrera begira, "inondik diru laguntzarik baletor", horreek zelan eta zertan erabili aztertuten dabe.

IGORRE

Andra migraduen topaketak ikasturtea amaitu arte luzatuko dira

Erredakzinoa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen barruan, Igorreko Udalak andra migraduen topaketak antolatu ebazan ikasturtearen lehenengo hiruhilerako. Taldea sortuta eta ondo funtzionetan dauala ikusita, ikasturte amaierara arte luzatzea ebatzi dabe. Saioak, 10:30etik 12:30era dira astelehenetan, hamabostean behin Igorreko Kultur Etxean. Hurrengo urtailaren 9an izango da.

Topaketa honeen helburu nagusia harrera eta ikasteko gunea eskeintzea da, andren rol sozialen gaineko hausnarketea egiteko, migrazioaren ondorengo errealidateari aurre egiteko gaitasunak indartzea eta bizimodu libre eta independenteagoa egiteko babes sarea sortzea da.

Bigarren saiakerea

Aurreko legegintzaldian be Igorreko Udala saiatu zan taldea egiten. Andra migradu eta bertokoen

espazioa izan gura eban haretan, batez be bertokoak batu ziran eta taldeak beste bide bat hartu eban. Antzerki tailerra sortu zan handik.

Orain Jabekuntza eskolea mar txan ipinterakoan, eta ikusita Arratian nahiko atzerritar dagozala, bigarren saiakerea egin gura izan dabela azaldu deutso BEGITURI Itsaso Bengoetxea zinegotziak. "Miriam Herbonek lan handia egin dau taldea sortu ahal izateko eta sortu da" eta ikasturteko lehenengo hiru hilabeteetan ondo funtzionau dauanez Udalak ikasturtea amaitu arte, bardintasan eta integratzen partidetatik dirua ipiniko dau.

Honek dira hurrengo topaketak: urtailaren 9 eta 23an, zezelaren 6 eta 20an; martiaren 6 eta 20an; apirilaren 3 eta 24an, eta maiatzaren 8 eta 22an.

AREATZA

Zor deutseen indemnizazioa pagetako eskatzeko konzentrazioak

Erredakzinoa

Abenduaren 29 eta 31n, Astondoa Piroteknian behar egindako behargin bik eta CCOO sindikatuko

hainbat kidek, behargin izandakoai Astondoa Piroteknian ez deusela pagau Epategiak ezarritako indemnizazioa salatu eben fabrika aurrean. Mobilizazioak jarraituteko

asmoa adierazto eben bildutakoak.

Beharginak sasoi honetan, salmenta asko egiten dirala aprobe txau gura izan dabe euren eskakizuna heldu arazoteko.



Abenduaren 29ko konzentrazioa Piroteknian aurrean.

ARTEA

Kulturarako izango da diru partidarik handiena



Arteako udaletxea.

Erredakzinoa

EH Bildu eta Aldatuz Plataformaren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran abenduaren 13an 2017rako aurrekontuak. Kontuok 892.380,50 euroko sarrerak eta gastuak aurreikusten dabez. Inbersinoetako diru partidarik handiena, 75.000 euro, Kultur Etxea barrizatzeko izango da.

Artean kultura "berbiztu" behar dala dino losu Murgia Aldatuz Plataformako zinegotziak. "Ez-pabere, lo egiteko herria izango da, ez parte hartzeako eta biziteko", eta funtsezkoa da kultura, euskeria eta herria dinamizetea. Kultur Etxearen diseinuaren proposamena prozesu parte hartzaile baten bitartez egin eben herritarrek. Herritarren eskaeren artean, bertan liburutegia ipintea eta KZ Gunea Kultur Etxera eroatea dagoz. Eskaerai erantzuteko eraikina eta espazioak berrantolatu eta atondu behar dira.

Beste partida garrantzitsu bat Haurreskoleak eroango dau. Eskolara eroan gura dabe Haurreskolea alokairua pagetan ez jarraituteko. Horretarako egin behar diran lanak, hiru edo lau urtetan amortizata egongo dira Murgia- ren ustez.

Inbersinoetarako ez dago diru askorik Artean, 2017ko aurrekontua ez dalako 90.000 euroa ailegetan. Horren %20 izango da inbersinoetarako.

Arteko Udal Aurrekontua jeitsi egin da bigarrenez eta 2016an baino 100.000 euro gutxiago izango ditu udalak 2017an. 2016ko aurrekontua 996.647 eurokoa izan zan-eta. Baina, ia dana ejekutau

ondoren superabita egongo dala dinoe udaletik. Zorrik be ez dauka Arteak. "Herri honek ez dauka arazo ekonomikorik" dino Murgiak.

Superabita sarrerea asfaltetako

Arteko sarrerea asfaltetako diru partida bat zabaldu dabe baina bertan dirua ipini barik. Udal gobernuko iturrien arabera, horretarako dirua 2016ko likidazioa egin ostean egongo da. Izan be, urtea superabitagaz amaitutea espero dabe.

EAJ-PNVk, barriz, sarrerea konponduteko, hau da plazatik kanposanturako bidea, 22.000 euroko partidea proposatzen eban. Abenduaren 2an egin zan batzordean aurkeztu ebezan jeltzaleak emendakinak, baina ez ziran onartu. Beste proposamen batzuk, Elexabeiti auzoa konponduteko beste partida bat eta auzoetara gas eta telefonia eroateko diru partidak zabalduetea izan ziran.

Horretarako hainbat partida gixitza proposatzen eben. Kultur Etxea egokitzeko, barbarako, 25.000 euroko partidea eta 2016an dirua sobratutako partidak be murriztea, beste batzuen artean.

Alkarteetarako laguntzak (1.200 euro) puntu generaleetik kendu eta Jubiladuen alkarteari partida nominala ipintea be proposatu eban EAJ-PNVk.

Ez ziran onartu. Aldatuz-eko zinegotziaren eretxian, "EAJ-PNV eta udal gobernuaren artean diferentziarik handiena ideologikoa da". Udal gobernuarentzat arlo soziokulturalak daukala lehentasuna dino, eta oposizioarentzat "errepideetan inbertitzea".

MIKEL ZULOAGA ETA BEGOÑA HUARTEREN ATXILOKETAK

Barrero saiatzeko prest

Aske baina kargupean itxi ebazan epaileak Mikel Zuloaga zeanuriztarra eta Begoña Huarte nafar ekintzailea abenduaren 30ean. Karguak "legez kanpoko inmigrazioa sustatzea" eta "ardurabakokeria larria" izan ziran. Bakotxari 2.000 euroko bermea ipini eutsan eta 12 egun ditue pagetako. BEGITU zarratuterakoan, Atenasen egozan Zuloaga eta Huarte.



Greziara joan aurretik Mikel Zuloagak eta Begoña Huartek grabautako bideoa.

Erredakzioa

Atxiloketa baten kronika

Abenduaren 27 eta 28 arteko gaubean, Greziako poliziak Igumenitsako portuan atxilotu ebazan Zuloaga eta Huarte, 8 errefujiadu Euskal Herrira modu ilegalean ekartera joiazanean. Grezian, 62.700 errefujiadu dagoz "harrapatuta", Europak Balkanetako bidea zarratu ebanetik. Zuloaga eta Huartegaz etortekoak ziran zortzi honeek egoera horretan egozan.

Atxiloketea eta ostean gertatutakoaren lekuko izan da Hibai Arbi de kazetaria eta hainbat hedabide eta Twitterren bidez emon dau jakitera han gertatutakoa. Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte, eta autokaraban ezkututa egozan Siria, Afganistan eta Iraneko 8 errefujiaduak, Italiara joateko ferry-a hartzeaz egozanean atxilotu ebezan. Euren asmoa zan, Igu-menitsan ferry-a hartu Brindisira arte, eta handik Bilbora errepidetik etortea. Atxiloketea gertatu zan

momentuan, Arbide portu ondoko taberna baten egoan. Ferry-a urteteko ordua baino ordu erdi lehenago kazetariak autokarabana kaleko jantzitako poliziaz inguratuta egoala ikusi eban. Errefujiaduakaz, polizia sekretua, eta kamuflaje uniforme eta metrailetadun polizia bik Zuloaga eta Huarteri guardia egiten. Danak atxilotu ebezan.

Hurrengo egunean aske geratu ziran errefujiaduak, ez ordea Mikel eta Begoña. Atxilotze zentroan geratu ziran biak, tranquil eta irribarrea



Arratia eta Zeberriko EH Bilduko alkate eta zinegotziak Zeanurin.

galdu barik. "Argi itxi, ez garala heroiak, persona normalak garala injustizia nabarmen baten aurrean ahal dabena egiten dabena" esan eutsan Zuloagak Arbideri komisaldegian.

Desobedientzia zibila

Gobernuak ez dabezala beteten hartutako konpromisoak, eta erakundeak errefujiaduen aldeko adierazpenak egin arren ez dirala ezertan gauzatzen ikusita, ekintzaile batzuek, Zuloaga eta Huarte tartean, ekintzetara pasetea ebatzi eban. Espainiak Europako Batzordean 2017ko urri lehenengorako 16.000 errefujiadu hartutako konpromisoa hartu eban eta 2016ko abenduan 898 baino ez ebazan hartu. Horregaitik, desobedientzia zibila zilegia bakarrik ez, guztiz beharrezkotzat jo eta legez kanpo, errefujiadu eremuetatik atera eta mugak zeharkatzen lagunduten hasi dira, Giza Eskubideak bermatzeko Europar hainbat ekintzaile. Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) plataformakoak tartean.

Legez kanpoko ekintzen erantzuleak, ekintza egiten dabena eurak izan arren, kasu honetan Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformea gehitu egin jakie antolakuntza mailan. Izan be, berrogeta hamar persona baino gehiagok lagundu dabe ekintza hau aurrera errotan, dirua eta azpiegitura ipiniz. Talde lana izan da ekimen hau.

Greziara urten aurretik Mikel Zuloagak eta Begoña Huartek euren errazioak azaltzen ebazan bideo bat grabatu eban. Honek dira

euren berbak:

"Adierazi nahi dugu persona errefuxiatuak ilegalki ekarri ditugula. Historiako sarraski handienekin konpara litekeen basakeria honekin bat ez egiteak ekarri ahal dizkigun ondorioak gure gain hartzen ditugula.

Guk giza eskubideei zor diegu obedientzia; horien urraketei desobedientzia. Mugak milaka pertsonentzako atxiloketa, deshumanizazio eta heriotza-eremu bihurtu dituztenei desobedientzia. Europako gobernuari desobedientzia.

Herri mugimenduetan ari diren hainbat lagunek finantziatutako eta irabazi asmorik gabeko ekintza da hau. Ez du giza elkartasuna eta salaketa politikoa beste helbururik.

Gobernuek izua legeztatzen duten artean eta giza eskubideak zein haien kupo ziztrina ere betetzen ez dituzten artean, herri mugimenduek, herritarrek, bihotz oneko pertsonak desobeditzeko eskubidea dugu. Pertsona errefuxiatuak ekartzen jarraitzeko eskubidea dugu. Euskal Herria harrera-lurralde bihurtzeko eskubidea dugu".

Mobilizazioak

Arratian, Iruñean, Bilbon, Donostian, Gasteizen, Estaduko hainbat uritan eta Grezian bertan hainbat mobilizazio egin dira ekintzaileak aske itzeko eskatzeko eta euren ekintzeagaz bat egiteko, "Alkartasuna ez da delitua" eta "Neuk be egingo neuke" lelopean.

Atxiloketa gaueko hurrengo goizean, OEEk gertatutakoaren barri

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietako, 3. 48530 LEZIOA, Bizkaia
Tel: 090 480 8300 / 090 200 717

ZEKUTZE
JATE TXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejateatx@bnetmail.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

ugatxa
taberna
Ugarana kalea, 8
48141 Dirma
T. 946 129 460

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

begitu
analiza ubide zaberrak

emoteko prentsurrekoa eta alkarretaratzea deitu ebazan Bilbon. Egun haretan bertan, Lemoan 18:30ean konzentrazioa egon zan eta 19:30ean Zeanurin.

Hurrengo goizean, abenduak 29, Arratia eta Zeberioeko EH Bilduko zinegotzi eta alkateak eta Arteako Aldatuz plataformako zinegotzi bategerpena egin eben Zuloaga eta Huarte askatzeko eta errefujiaduak mugak zabalduko eskatzeko. "Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte atoan askatutea eskatuten dogu, persona errefujiaduakazko alkartasuna eta Europaren politikak salatuteko ekimena egin eta atxilotuak izan diralako. Arratiako alkateok, gatazka politiko-militar eta sozioekonomikoak eragindako mobimentu migratorio behartuak kaltetuten dabazan miloeka personagazko alkartasuna eta giza eskubideen urraketea salatuten dogu" esan eben. Greziako enbajadeagaz hartu-emonetan ipiniko zirla Begoña eta Mikelen askatasuna eskatuteko eta Arratia harrera herria izateko prestutasuna be adierazo eben.

Zeanuriko Udalak Eusko Jaurlaritzaren komunikaduagaz bat egin eta adierazo eban ulertzen zituala erakunde eta herritar askok, Europar Batasuna errefujiaduakaz jarraituten dauan politikakaz ados ez egoteko eta haserre egoteko dituen errazoiak, baina ez datoza la bat kasu honetan salaketa hori egiteko aukeratu dan metodoagaz.

Egun haretan, Zeberion EH Bilduk proposatu eban OEE zapia eskegitea udaletxean eta alkateak ezetza emon ebalaz eutsan BEGITURI Kepa Perez Urraza zinegotziak.

Iluntzean konzentrazioak egon ziran Zeanurin eta Iruñean. Zeanurin 300 persona inguru batu ziran. Ordurako, egotziko eutsien delituak zeintzuk izango ziran jaki-



Mikel Zuloaga eta Begoña Huarte atxilotu osteko egunean Zeanurin egindako konzentrazioa.



Atxilotutako biharamunean Bilbon egindako konzentrazioa.

naren gainean, baikor egozan batutakoak eta, batez be, Europaren politikak salatu eta errefujiaduak alkartasuna adierazo eutseen konzentrazioetan. Konpromiso bi hartu ebazan OEEk: mugak zabaltzea legaltasun barrian edo desobedientziaren bidetik eta gure herria persona guztientzako harrera herria izan daiten lanean jarraitutea, hain zuzen be.

Konpromiso horreek berretsi ebazan plataformeak hurrengo eguneko uriburuetako konzentrazioetan.

Epaile aurreko deklarazioa

Abenduaren 30ean deklarau eben epailearen aurrean. Horren barri be, bertan egoan Hibai Arbidek emon eban zuzenean. Lekuko

bateri deitu eutsan epaileak lehenengo, autokarabanen ezkatututa egoan Afganistango Rahin-eri. Ondoren Mikel Zuloagaren txandea izan zan eta gero Bego Huartek deklarau eban.

Epaileak 2.000 euroko berme bana ipini eutsen Zuloaga eta Huarteri. Hamabi egun daukie bermea pagetako, eta libre geratu ziran baina karguakaz. Epaileak mantenido ebazan "legez kanpoko inmigrazioa sustatzea" eta "ardurabakokeria larria" egitea, errefujiaduak erroteko autokarabanak ez ebalalako beteten "beharrezko segurtasun neurriak".

Deklarau bitartean, epaitegian konzentrazioa egin eben 50 lagunek alkartasuna erakusteko. Grezia eta Espainiatik be alkarte askok sinatutako hainbat komunikadu egin ebezan, Zuloaga eta Huarteri alkartasuna adierazo eta errefujiakazko Europako politikak salatuteko.

Libre geratu ziranean, eta Atenasera abiatu aurretik, Errefujiaduak Internamentu Zentritik pasau ziran Zuloaga eta Huarte, eta Atenasen be, eurekaz etortekoak ziran Rahin eta Behrouz pakistaniarrakaz batera, errefujiaduak okupata daukien City Plaza Hotela bisitau eben.

Ongi Etorri Errefujiaduak Bizkaia dirua batzean dabil lehenbailehen etxera etori daitezkan Zuloaga eta Huarte. Han geratuko dira errefujiaduak, baina Europako errefujiaduakazko politikak aldatu ezean, giza mobimentuak desobeditu egingo dabek lege honeek, Giza Eskubideak obeditu ahal izateko. Zuloagak Arbideri emondako alkarrizketan dinoana lez, "ez da lehenengo aldia egiten dana" eta "jarraitu behar da barriro saiatzen, oraingoan ez jaku ondo urten, baina holan ikasten da. Bueltauko gara".

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

TRINKETEA

Lur Ziarrusta dimoztarra Bizkaiko txapelduna

Erredakzioa

Abenduaren 23an jokatu ziran Abadiñon, eskuz banakako Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak. Gazte Mailan, Txumuluxueta alkarteko Lur Ziarrusta dimoztarrak eroan eban txapela, Abadiñoko Jon Aranari 35 eta 29 nagusitu ostean.

Hiru final jokatu ziran. Kadete, Gazte eta Nagusiak 2. Mailakoak. Kadete mailan, Alain Argaluz eta Nagusien mailan Josu San Sebastianek jantzi eban txapela.

Hiru partiduen artean, lehiarik gogorrena arratiarra eta abadinoz-

tarra aurrez aurre izan ebana izan zan. Biak asko eta ondo jokatu eban baina Ziarrusta abilagoa izan zan pelotea sarera eroaten eta holan txapela lortu eban. "Gogorra izan zan batez be hasikeran, ze atzetik joan nintzan. Gero hobeto jokatu neban eta azkenean irabazi neban. Pozik nago" azaldu deutso txapeldunak BEGITURI.

Ez da hau, dimoztarrak trinketean lortzean dauan lehenengo txapela. Orain urte bi, Kadete mailan Euskal Ligako txapela eta igaz Bizkaiko Binakakoa irabazi ebazan eta.



Jon Arana eta Lur Ziarrusta.

Bizkaiko Binakako txapela

Denporaldia sano ondo doala eta binakako txapela be lortzeako asmotan da Txumuluxuetakoa. Banakakoan aurkari izandako Jon Arana abadinoztarra izango dau bikotekide binakakoan.

AZKOREA

Andrazkoen Urrezko Kopa jokatu dau Irati Astondoak

Erredakzioa

Abenduaren 21ean, Donostian, andrazko Azkolarien Lehenengo Urrezko Kopa jokatu zan. Maika Ariztegi nafarrak eroan eban kopea. Lehian lau azkolaria egon ziran, tartean Irati Astondoa. Zeanuriztarak hirugarren egin eban.

Oin bateko bost enbor moztu behar izan zituen partaideak. Hasikeratik Ariztegi eta Izkue nafarren

artean egon zan lehia. Parean ibili ziran biak eta atzen enborrean, Maika Ariztegi beterranoa nagusitu zan. Maika Ariztegi 11 minutu eta 48 segundotan amaitu eban beharra; Irue Izkuek, barriz, 12 minutu eta 16 segundotan gelditu eban kronoa.

Zeanuriztarak hirugarren egin eban, 13 minutu eta 07 segundoko denporeagaz. Hasikeran saiatu zan lehenengo biai jarraituten

baina ezinezkoa zala ikustean, hirugarrenari eutsi eutsan. Laugarrena, Lesakan bizi dan Xanta Sousa (16:11) brasildarra izan zan.



Irati Astondoa.

PELOTEA

Dimako txapelketako finala 5ean

Erredakzioa

Finalurrekoak abenduaren 23an eta 30ean jokatu ostean, Dimako Gabonetako II. Txapelketako fi-

nala urtailaren 5ean jokatu da arrastiko bostetan. Hiru partidu izango dira; binakako bi, Kadete eta Nagusietan eta buruz burukoa Gazte mailan.

Kadete mailan, Kantero eta Garaizar dimoztarrak Etxeita zeanuriztarra eta Egañaren kontra neurtuko dira. Gazte mailan, Artolak Arana izango dau aurkari. Nagusietan, Arbizu eta Galarzak, Ziarrusta dimoztarra eta Lemoako Etxebarriaren kontra jokatu dabe finala.

Finalean, frontoian bertan tabernea egongo da edari eta pinxoakaz.

FUTBOLA

Arratia Futbol Taldeak ekipamentuak eta baloiak bialduko dauz Cabo Verderra

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak Igorren 15 bat urte bizi izandako caboverdeartar baten bitartez, Cabo Verderra Ashada del Monte herrira bialduko ditu 300 ekipamentu inguru eta baloiak. Aspaldi ez dala klubak talde guztietako ekipamentuak aldatu ebazan, eta lehenengo ondo dagozala ikusita, aprobetxetako modua bilatzen hasi ziran.

Modu zuzenean bialduko dau materiala klubak Cabo Verderra, Emilio Dos Santos bitartez. Izan be, askotan joaten da hara orain Trapagaranen bizi dan Emilio Dos Santos, ze bertakoa izanda, jubilau zanetik askotan joaten

dala herrira negua pasetan dino Asier Etxezarraga Arratia Futbol Taldeko presidentek.

Baloiak be, egoera onean egon arren, erretiratu egin behar izan dauz Arratia Futbol Taldeak, marrazkia gastauta eukielako.



Etxezarraga eta Dos Santos.

AZKOREA

Andrazkoen Urrezko Kopa jokatu dau Irati Astondoak

Erredakzioa

Abenduaren 21ean, Donostian, andrazko Azkolarien Lehenengo Urrezko Kopa jokatu zan. Maika Ariztegi nafarrak eroan eban kopea. Lehian lau azkolaria egon ziran, tartean Irati Astondoa. Zeanuriztarak hirugarren egin eban.

Oin bateko bost enbor moztu behar izan zituen partaideak. Hasikeratik Ariztegi eta Izkue nafarren

artean egon zan lehia. Parean ibili ziran biak eta atzen enborrean, Maika Ariztegi beterranoa nagusitu zan. Maika Ariztegi 11 minutu eta 48 segundotan amaitu eban beharra; Irue Izkuek, barriz, 12 minutu eta 16 segundotan gelditu eban kronoa.

Zeanuriztarak hirugarren egin eban, 13 minutu eta 07 segundoko denporeagaz. Hasikeran saiatu zan lehenengo biai jarraituten

baina ezinezkoa zala ikustean, hirugarrenari eutsi eutsan. Laugarrena, Lesakan bizi dan Xanta Sousa (16:11) brasildarra izan zan.



Irati Astondoa.

MENDIA

Federazio lizentziak egin daitezke menditaldeetan

Erredakzioa

Bizkaiko Mendizaleen Federazioan, federatzeko, hau da, mendiko istripuetarako aseguruia eukiteko, menditaldeetara jo behar da. Arratiako menditaldeak, bazkideai, federatzeko egin behar diran tramiteak egiten

deutseez. Areatzako Lamino Mendi Klubaren bitartez federatzeko, bere lokalean ordaindu eta emon behar dira datuak, urtailaren 12an, arrastiko 18:00etatik 19:00etara. Lemoako Ganzabal Mendi Taldekoak eguaztenetan egoten dira 20:00etatik 21:30era, tramiteak egiten eta Zeberioko Austarri Mendi Taldekoak be barikuetan egoten dira plazako lokalean 20:00etatik 21:00etara.

Zeanuriko Suzien Mendi Klubak, posta elektronikoz bialdutako galdegegi baten bitartez emoten dau federetako aukerea. Horretarako suzienmendikluba@gmail.com helbidera idatzi behar da.

	Lizentzia + estadia	Lizentzia + estadia + Pirineoak	Lizentzia + estadia + Pirineoak + mundua
Haurrak	16,25	30,95	81,85
Gazteak	21,12	35,82	86,72
Helduak	76,86	91,56	142,46
Onuraduna	68,50	83,20	134,10
65 urtetik gorakoa	58,01	72,71	123,61
65 urtetik gorako onuraduna	49,65	64,35	115,25

Honek dira mendian federatzeko 2017ko prezioak.

Dirabizko Urri lezetakoan

Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidazekoan

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

MENDIA

Alex Txikon Everestera neguan eta oxigeno barik igoten saiatuko da

Abenduaren 25ean, Lemoako alpinistea Katmandura abiatu zuen, mendirik altuena neguan eta oxigeno barik igoteko asmoz. Erronka gogorra da. Izan be, -60°C.ko tenperaturak egoten dira han eta 150 Km/h.ko haizeak. Carlos Rubio madrildarra dauka espedizinkide.

Erredakzioa

Muturreko eguraldiak gatx ipiniko deutse lemoztarrari eta bere kideari tontorra zapaltzea. Dana dala, Txikonek esperientzia dauka neguko espedizinoetan. Izan be, igaz neguan igo zuen Nanga Parbat-era. Eurakaz egongo dira, bigarren kanpalekuraino igoko diran 5 sherpa. Abentura hau filmetako Aitor Barez zine zuzendaria eta Pablo Magister kameraria

izango dira bertan.

Neguko espedizinoak

Desnivel aldizkariak argitaratutakoaren arabera, orain arte hamabost alpinista igoen dira neguan Everestera. Oxigeno barik, Ang Rita Sherpa nepaldarra bakarrik. Honek 1987ko abenduaren 22an zapaldu eban tontorra.

Neguko igoeratzat joteko erispide desbardinak dagoz. Mendian espezializautako aldizkari honen

arabera, Nepal, Txina eta Pakistaneko gobernuentzat abenduaren 1ean hasten da negua, "beste aditu batzuentzat, espedizinoak tontorra zapaldu behar dau, negu astronomikoan; hau da, abenduaren 21 eta martiaren 21aren artean".

Lehenengoak Krzysztof Wielicki eta Leszek Cichy poloniarrek izan ziran, oxigenoa erabilia. Yasuo Kato 1982ko abenduaren 27an igoen ziran tontorrera baina jaitzikera desagertu egin zuten eta 1983ko abenduaren 16an eta 1993ko abenduaren 18an eta 20an, hiru kordada japoniar heldu ziran. Honek, erabilitako erispidearen arabera, neguko igoeratzat jo daitezke ala ez.

1993ko abenduaren 22an, japoniar bi heldu ziran Everesteko tontorrera: Ryushi Hoshino eta Yoshio Ogata.

1987ko abenduaren 22an, Young-Ho Heo korearrak eta Ang Rita Sherpa nepaliarrak egin eban tontorra. Azkenengo honek oxigeno barik. Bera izan da bakarra momentu honetara arte neguan eta oxigeno barik igoen dana.

Espedizinoak neguan hasi eta amaitu behar dala esan eban Igorren Simone Morok eta Alex Txikonek neguko espedizinoetzat joteko.



Txikon Igorreko Kultur Etxean Ali Sapdara eta Simone Morogaz.

AZKOREA

Urrezko Aizkolarien Kopako txapela eta Bizkaiko Lehen Mailakoa jantzi dauz Atutxa II.k abenduan

2016an, parekorik ez dau euki Aitzol Atutxa azkolarari dimoztarrak eta modu ezin hobean amaitu eban

2016a txapel bi jantziz.

Erredakzioa

Asteasun izan zuen Urrezko Aizkolarien Kopako finala abenduaren 31n. Dimoztarrak 15 kanaerdiko ebagi ebazan 21minutu eta 17 segundotan, Jon Rekondoren aurretik. Hirugarrena Iñaki Azurmendi izan zuen.

Aurten jokatu dauan ia guztia irabazi dau Aitzol Atutxak.

Bizkaiko Lehen Mailako Txapela
Hamar egun lehenago Bilbon

jokatutako Bizkaiko txapela jantzi eban. Lau kanaerdiko, 60 ontzako bi eta oinbiko beste bi ebagiteko 24 minutu eta 34 segundo behar izan ebazan, bigarrenari Irazabalari, 12 minutu pasa aterata (37m 01s). Mendieta lemoztarrak be parte hartu eban eta laugarren amaitu eban 39 minutu 19 segundoko denporeagaz. Parte hartzeako zuen beste arratiarra, Xabier Garcia "Utzu" lemoztarrak, ezin izan eban parte hartu gaisorik egon zalako.



Aitzol Atutxa.

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igorre - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentilo 100
R.P.S. 21/06

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsinoa
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FRUTERIA BEATRIZ
FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

ASTEKO ESKEINTZAK
OTZARA ITZEL HONEN IRABAZLEA. ABENDUAREN 24AN ZOZKETATU GENDUAN GURE BEZEROEN ARTEAN

EGUNERO ESKEINTZA BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51

KULTUR PROIEKTUA

Lemoako aisialdi eta kultura espazioak berrantolatzeke, Maraka taldearen gidaritzapean, Kultur izeneko prozesua abiatu eban Udalak urrietan. Abenduaren 19an, herritarraz lau lan saio egin ostean, aisialdi eta kulturarako espazioen berrantolaketaren proposamena aurkeztu eban.



Kulturarako espazio eta zerbitzu barriak egongo dira Lemoan

Erredakzioa

Urteetarako proiektua da eta eraldaketa handia ekarriko dau; aukera barriak eskeiniko ditu eta dagozan zerbitzuak hobetu eta baliabide gehiago ipiniko ditu lemoaztaren eskuetan. Beharizanak aztertu ditue eta horreek beteteko erabiltzaileak eurak diseinatu dabez espazioak. Abadetxea, Arraibiko eraikina eta Kulturgunea izango dira etorkizuneko Lemoako kultur espazioak. Nobedade moduan, orain arte Lemoan egon ez diran ikasteko gelak eta entsegu lokala egongo dira.

Orain arte, Arraibin hiru eraikin erabili izan ditue. Liburutegia, ludotekea eta KZgunea dagozan eraikina; udaletxeko pleno aretoa; eta haur txokoa dagoan eraikina. Lehenengo espazioa mantentzen egongo da, baina atzenengo bi horreetan egiten diran kultur ekintzak beren-beregi kulturarako sortutako espazioetara pasauko dira. Gauza bera gertatuko da eskoleguz.

Eskolako gela batzuk be, Jubiladuen gaineko areto moduan ezetuten dana tartean, aisialdi eta kultur espazio moduan erabili izan dira orain arte, baina Institutua dagoanetik gela horreek Institutuak behar ditu eta ez dabe izango orain arteko erabilerarik. Azkenik, Elizondo Kulturgunea, kulturarako sortutako espazioa da; orain, bertan egiten diran erabilerak kontuan hartuta, barrizatu egingo da.

Aurkeztutako proiektuaren araber, hiru eraikinetan eskeiniko dira kultura zerbitzu eta baliabi-

deak: Abadetxean, Arraibiko eraikinean eta Kulturgunean hain zuzen be.

Abadetxea

Udan Gotzaindegiagaz akordioa sinatu ostean, Udalaren kultur ekipamentu moduan erabiliko da Abadetxea. Hiru solairu ditu. Beheko solairua eta lehenengoak 200 metro karratu inguru ditue baxotxak eta bigarren solairuak 100 metro inguru. Eraikinari izen barria ipinteko proposamenak batzean dabil Udala.

Abadetxeak, plaza, liburutegia, material biltegiak, ikasketa gunea eta erabilera anitzeko espazioak eskeiniko ditu. Plazea herritarrek bertan egoteko eta umeak olgetako aterpeko espazioa da. Plaza estalirik ez dago Lemoan eta hau funtzino hori beteteko pentsatu da. Akustika ona dauka eta ekintza antolatu eta ez antolatuak egingo dira bertan. Memoria Historikoari lotutako erakusketa bat be izango da han.

Liburutegiak bertan irakurteko zein kanporako mailegu zerbitzuak eskeiniko ditu. Umeentzako espazio banandua izango dau; egurrezko lurra, alfonbrak eta altzari txikiakaz. KZ Gunea, mediateka eta lana taldean egiteko espazioak be egongo dira liburutegian. Gainera, orain arte Lemoan egon ez dan ikasketa gunea sortuko da Abadetxean. Sarrera zuzena izango dau, beste zerbitzuak baino ordutegi zabalagoa izan daiten. Leku isila eta atsegina izango da, ikasketa indibidualerako prestatua.

Material biltegiak be egongo dira, giltzapekoak eta alkarteen beharizanetara moldatutakoak.

Erabilera anitzeko espazioa be egongo da Abadetxean, bilerak, talde lanak, ikastaroak eta bestelako ekimenak egiteko. Eta kanpokaldean berdegunea. Ortu bat sortuko dabe inguruari bizitza emoteko.

Arraibiko eraikina

Arraibiko eraikinean, aterpea, erabilera anitzeko espazioak, ludotekea eta informatika gela egongo dira.

Arraibiko eraikina ez da barria, baina moldatu egingo dabe erabilerak kontuan hartuta. Gaur egun liburutegia eta KZ Gunea dagoan lekuko beheko partea kristalakaz zarratuko dabe eta holan, umeak eta helduak egoteko espazioa sortuko da. Egunkaria irakurteko zein olgetako aproposa izango dala dinoo Marakakoak. Haurtxokoa be



Eider Aldape eta Irune Jimenez Maraka taldekoak, Saioa Elejabarrieta alkateagaz.

egongo da.

Ludotekea be egongo da Arraibin, hezitzaile batek gidatuta, 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Informatika gelan 8 ordenagailu egongo dira. Eta erabilera anitzeko espazioak, edade guztietako jentek erabiliko dauz ekintza desbarrinetarako.

Kulturgunea

Elizondoko Kulturgunean, Gazteleku, laborategia eta entsegu lokala egongo dira.

Orain arte be hortxe egon da Lemoako Gazteleku, Karabie Gaztetetik oso hur; eraikin berean, hain zuzen be. Horregaitik akaso, gaztetxoak ez dabe gura izan lekuz aldatu. Gazteleku barria, gazteak eurak diseinatu dabe eta suetea, egongela bat, teknologia barriak eta jantzalekuak izango ditu.

Laborategia sormenerako lekua izango da eta eskulanak, tailerrak eta ikastaroak egiteko espazioa izango dau. Iturriak, labea, mahai handiak eta espazio zabalez horniduta egongo da. Biltegiak be egongo dira.

Amaitze, entsegu lokal bat be egongo da Kulturgunean. Hau ez dala lehenetsuna esan eban proiektuaren aurkezpenen. "Ez da gaur egungo beharizana, baina Igorre eta beste herrietako esperientziak kontuan hartuta, interesgarri eretxi deusie herritarrek leku insonorizatu bat eukiteari". Batez be, Musika Eskolakoak.

Hurrengo pausak

Kultur Lemoa proiektua ez da hemen amaitu. Izan be, proiektua epe ertain edo luzerakoa da. Herritarrek egin dabe euren proiektua eta orain bide instituzionala hartuko dau: arkitektoari aurkeztu, esleipena egin eta abar. 2017ko aurrekontuetan egongo dala horretarako dirua esan eban Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

MUSIKEA

New Orleans-eko soinua Areatzan

Erredakzioa

The Loozies taldeak New Orleans-eko Rithm and Blues-a ekarriko dau Areatzara, urtailaren 4an arrastiko 19:00etan udaletxeko Areto Nagusian emongo dauan kontzertuan.

Paul San Martin pianojole eta abeslariagaz batera, Nando Neira (bajua) eta Carlos Sagi (bateria) egongo dira. Ibilbide handiko musikari honeek, besteak beste, Kim Weston, Measha Brueggergosman, Billy Boy Arnold, William Prince, Nico Wayne Tousseint edo Ruper Ordorikagaz jo dabe. Euren erreperitorioa, pasa dan mendeko musika afroamerikar dibertigarri eta sustraituenean oinarrituta dago.

GURASO ESKOLA

Nerabeen gurasoentzako eskolak Igorren



Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko Adikzinoen Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak edade desbarrinetako umeen gurasoentzako eskolak antolatu ditu. Lehenengo, "Guraso izatea: zama, uko edo gozatzea" izeneko, urtailaren 12an hasiko da eta 12 eta 16 urte bitarteko nerabeen gurasoentzat da. Bertan arratiar guztiak hartu daikie parte.

Ikastaroak ordu biko, 17:00etatik 19:00etara, bost saio izango ditu eguenetan; urtailaren 12an hasi eta zezeilaren 9ra arte. Partaideak hurrengo gaiak jorratuko ditue: Zer da haztea? Zer da adolozente izatea? Zein da gurasoen papela? Agintea, arauak eta mugak; bardinakaz topaketa eta hartu-emonak, eta ikasketak eta ebatziak hartzea. Ikastaroa Kultur Etxean izango da.

Izena emoteko mankomunitatera deitu edo prebentzioa.ariatia@bizkaia.org helbidera idatzi behar da.

IKASTAROA

Feminismoaren historia ezetuteko ikastaroa

Andren Jabekuntza Eskolearen programearen barruan, Feminismoaren historiaren gaineko ikastaroa egongo da urtailaren 12, 19 eta 26an Lemoako Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa Miren Arangurenek emongo dau.

Erredakzioa

Feminismoa mendeetako burrukea izan arren, eskolako liburuetan ez da apenas agertzen eta bere historia nahiko ezezaguna da. Munduko herrialde guztietan andrak egindako burruka eta ekarpenak garatzen dabe gaur egungo feminismoa. Izan be, munduan eta Euskal Herrian mobimentuak izandako bailakaerea eta aldarrikapenak ezetutea etorkizuneko erronkai aurre egiteko tresna ezin hobea dala uste dabe Arratiako Andren Jabekuntza Eskolakoak.

Autodefensa tailerra

Urtailaren 28an, Autodefensa feminista tailerra egongo da. Ha-

sikera baten indarkeria sexistea jasan daben andrazkoentzako zan, baina inork ez dau izenik emon eta andra guztiai zabalduetea ebatzi dabela azaldu deutso BEGURI Xabier Pastor Arratiako Udalen Mankomunitadeko Bardintasun Teknikariak.

Ikastaroa, beraz, andra guztientzat izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Bediako Kultur Etxean izango da, Maitena Monroyren eskutik.

Gizonen Gunea

Gizonen Gunea urtailaren 19an batuko da Dimako Elexalde Gelan, tratu onak eta komunikazio ez bortitza landuteko. Urri bigarrenaren 20an egoan aurreikusita saio hau, baina atzeratu egin behar izan eben.

LIPDUB-A

Beldur Barik 2016 programan grabautako bideoa ikusgai vimeo plataforman

Erredakzioa

Beldur Barik 2016 programan, Arratiako Udalen Mankomunitateak gazteleku edo-eta gazte taldeak grabautako lipdub-aren emoitzea ikusgai dago <https://vimeo.com/196573918> helbidean.

Bideoa Diman grabau zan ze-

mendiaren 25ean. Grabau aurretik prestakuntza saio bi egin ziran, alde batetik Beldur Barik Jarrera landuteko eta bestetik, alde teknikoa prestatuteko. Lipdub-ean, Bediako Gaztetxokoak, Lemoako Gaztelekuak, Maratuk, Dimako gaztelekuak, eta Arratiako ume, gazte eta helduak hartu eben parte.

LIBURUA

Elena Fernandez idazleak liburuak sinatuko ditu Igorreko Orrie liburudendan

Erredakzioa

Elena Fernandez urtailaren 13an egongo da, 19:00etan, Igorreko Orrie liburudendan, *Cerezas amargas* liburuak sinatuten. Eleberria intriga nobelea da XVIII. mendeko eta gaur egungo Barakaldon dago girotuta.

Cerezas amargas Fernandez lehenengo nobelea da. Aurretik, narrazioak eta poema liburu bat *Triste invierno* ditu argitaratuta barakaldarrak. Euskeraz eta gaztelaniaz idazten dau eta hainbat sari jaso ditu. Bat aitatzearen, Bizkaidatz Bizkaiko Foru Liburutegiko Lehiaketako lehenengo saria. Euskeraz finalista izan da Gora Gasteiz 2015 errazismoaren kontrako narrazio lehiaketan eta Otxarkoagako Mugarik Gabeko XIV. Haur Ipuin Lehiaketan.

Sinopsia

Eraso sexual zantzuak dituan hilketa batek, Barakaldoko San Bizente auzoa astinduko dau. Edurnek inplikautako bigaz hartu-emon dauka eta sentimentuen bidezko barruko biajea hasiko dau eta egia topatzen saiatuko da. Hilketek 1712an gertatutako beste hilketa baten antza dauka. Istoria XVIII. mendeko eta gaur egungo Barakaldon girotuta dago.



cerezas amargas

IKUSKIZUNA

Lasarte Aretoko bazkide izatea merkeago hilaren 5era arte

GABONETAN KULTUREA OPARITU!!
~~30€~~ → 25€

- Ikuskizun guztietan %25eko deskontua
- Urtean Zuzeneko ikuskizun bat doan
- Urtean 4 film doan
- EUSKAL ANTZOKIEN SAREAKo antzoki guztietan deskontuak

Lasarte Aretoko lagun txartela VIII. Gabonetako kanpaina berezia Abenduaren 16etik urtarrilaren 5era arte

Erredakzioa

Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoko bazkide txartela merkeago egin edo barriztu daiteke urtailaren 5era arte.

Txartelagaz urteko ikuskizun guztietan %25eko deskontua

izaten da, eta zuzeneko ikuskizun bat eta lau pelikula debalde dira. Ikastaroak be %15eko deskontua daukie txartela erakutsita. Gainera, Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan, deskontuak egiten ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz.

ANTZERKIA

Mari Kixkur eta hiru hartzak umeentzako Lasarte Aretoran

Erredakzioa

Urtailaren 7an, *Mari Kixkur eta hiru hartzak* XIX. mendeko ipuin klasikoa taularatuko dau GluGlu Produkzioak konpainiak Lasarte Aretoran. Emonaldi bi egongo dira, bata 17:00etan eta bestea 19:00etan.

Musikea, jantza eta komedia bitartez kontauko dau ipuina antzerki taldeak. Antzezlan honen gaz, umeak eta familia osoak norbanako bakoak intimidade-

rako daukan eskubide eta alkarregazko errespetuaren gaineko hausnarketea egingo dabe.



DUNBA

Gabonak

Inazio Zubizarreta ikastetxeko 5. mailako ikasleak

Urte zaharrari agur jan daiguzala sei jogur nire eskola gaztelua da nire arkatza eskalibur.

Astoaren lehen arrantza osabaren azken dantza gure aitek ogi erdia ostondu du aurtan antza.

Beheko suaren bezero jarri gara bero-bero ikatzik gabe etorriko da aurtan ere Olentzero.

Ama zenbat eskandalu sorgin, panpin, hanka palu beharrik ez dut batera baina ditut mila erregalu.

Gorri-gorri ta beilegi txapel handia eskegi Olabarriko etxe handian galdu da Mari Domingi.

Joan zaigu hamaseia tragau da auzoko behia Laurkin gaintetik entzuten dugu hamazazpiaren deia.

Hankaz gora dago dana non da etxerako lana? Afari ona prestatzeko hur izaten dugu amama.



Turroi ederra saskian katagorria azpian igual hobeto portauko gara bi mila ta hamazazpian.

AGENDEA

URTAILAK 3
BEDIA

10:00etan, urtekerea Gabonetako Umeen Parkera. Bueltea 19:00ak inguruan. Bazkaria eta merienda eroan behar dira.

IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxoganen tailerrak aterpean.

Urtailaren 5era arte, udal ikastaroetarako izena emoteko epea. Zirkio ikastaroa umeentzat, talde bat martitzenetan eta beste bat eguenetan 17:00etatik 18:30era. Gazteentzat martitzenetan 18:30etik 20:00etara; Ariketa hipopresiboak martitzenetan 17:30ean eta 18:30ean; Argazkigintza oinarrikoa eta aurreratu; Autoestimua garapena arte plastikoen bitartez, zapatuetan 10:00etatik 13:00etara; Yoga, astelehen eta eguaztenetan 18:30etik 20:00etara eta martitzen eta eguenetan 18:15etik 19:45era; Irakurketa tailerra, astelehen bat hilean 17:00etatik 18:30era; Jantza afrikarrak, hiru zapatu hilean 10:30etik 13:30era eta Tai Chi martitzenetan 18:00etatik 20:00etara.

Hilaren 13ra arte, *Gorputz solidoen teoria eta zorientasuna, umeentzat kontautu* Fernando de Vicenteren erakusketa. Kultur Etxean.

21:15etik 22:15era, martitzenetan eta 21:00etatik 22:00etara eguenetan, Ismael Pereirak Kiñu Gaztebean zunba eskolak emongo ditu. Izena emoteko, deitu edo whatsapp bat bialdu 676 247 784 telefonora.


LEMOA

Urtailaren 5a arte, Ebaketa-jantzigintza, kakorraz, eta puntuari buruzko orientazio ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Hilaren 13ra arte, Gorputza esnatzen jantza eta mobimentu kreatiboaren bitartez ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean eta www.lemoa.net webgunean.

20:00etan, Korto Express Lehiaketarako film laburren aurkezpena eta emonaldia. Karabie Gaztebean.

ZEANURI

11:00etan, Gasteiz ezetu Gabonetan eta zinera urtekerea.



Txuma Murugarren Kiñu Gaztebean

Txuma Murugarrenek kontzertua eskeiniko dau abenduaren 13an, 21:00etan, Igorreko Kiñu Gaztebean.

Txuma Murugarren (Errenteria, 1964) Sasoi Ilunak taldeko abeslari, gitarrista eta kantuen hitzen egilea izan zan 90eko hamarkadan. Hiru disko grabau ebazan taldeak eta 2000. urtean bakarkako ibilbideari ekin eutsan Murugarrenek. Lau disko errenkadan kaleratu ondoren, Rafa Rueda eta Pettigaz *Hauxe*, grabau eban eta Julen Gabiria idazlegaz batera, *Mathilde maitatzeko moduak* ikuskizuna taularatu eban. Murugarrenen kantuetatik abiatuta, Mathilde izeneko personajearen inguruko istorio bat asmatu eban Gabiriak, musikea eta literatura buztartzeko.

Nazinoarteko kantarien kantak be euskeratu ditu; Lou Reed-en hainbat kanta eta Nick Cave musikari australiarren, *Nocturama* diskoa barbarako.

URTAILAK 4
AREATZA

19:00etan, The Loozies taldearen kontzertua udaletxeko Areto Nagusian.

URTAILAK 5
AREATZA

17:30ean, Erregetako Kabalgatea Karpotik hasita.

23:00etan, kontzertuak Gaztebean. Neke Politikoa eta Guda Dantza taldeak.

BEDIA

18:30ean, Erregetako Kabalgatea. Aurretik txokolata bananduko da.

IGORRE

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

LEMOA

Stankeik taldearen kontzertua Karabie Gaztebean.

URTAILAK 6
DIMA

19:30ean konzentrazino, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

URTAILAK 7
IGORRE

17:00etan eta 19:00etan, *Mari Kixkur eta hiru hartzak* antzerkia umeentzat, saio bi. Lasarte Aretoan.

LEMOA

12:00etan, truke azokea arkupetan.

20:00etan, Pintxo Lehiaketa eta kontzertua Karabie Gaztebean.

URTAILAK 8
IGORRE

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.

URTAILAK 9
BEDIA

Zezeilaren 5ean Alto Campoo-ra eskiatzera joateko izena emoteko epea hilaren 20ra arte. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta.

IGORRE

10:30ean, andra migraduen topaketa saioa Kultur

Etxean.

URTAILAK 11
LEMOA

Hilaren 20ra arte, Patchwork ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Udaletxean eta www.lemoa.net webgunean.

URTAILAK 12
AREATZA

18:00etatik 19:00etara, Lamino Mendi taldean bazkidetzeko eta federatzeko aukerea.

BEDIA

Urtekerea, Turroi eguna. Ganguren antolatuta, Udalaren laguntzeagaz.

IGORRE

17:00etan, AUMek antolatuta, "Guraso izatea: zama, uko egitea edo gozatzea?" 12 eta 16 urte bitarteko gaztekoen gurasoentzako tailerra Kultur Etxean.

20:00etan, zine kluba. *Fresas salvajes* (Ingmar Bergman, 1957). Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:00etan, Feminismoaren historiaren gaineko ikastaroaren lehenengo saioa. Miren Aranguren eskutik. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

URTAILAK 13
AREATZA

Umeentzako talo tailerra. Gorbeia Parke Naturalak antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Elena Fernandez idazleak *Cerezas amargas* eleberria sinatuko dau Orrie liburudendan.

URTAILAK 14
AREATZA

20:00etan, The Old Town Ramblers taldearen emonaldia The Quiet Corner-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *Sully* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 15
IGORRE

17:00etan zinea *Vaiana*; 19:30ean *Sully* Lasarte Aretoan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
SALGAI

Hamar ardi eta aharitua (latxa errazakoak). Gura izan ezker, Undurraga auzunean, hektarea bateko larrea eta txabolea be itxiko jako erosleari, garbitzearen truke. Telefonoa: 653 745 838 (Gotzon).

DANERIK
BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxe garbiketarako eta plantxea egiten dodaz. Kotxeduna. Interesatuak deitu 658 591 307 telefonora.

LAN BILA

Etxe barruko behargin moduan lan bila dabilen neska bat naz. Persona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiten dodaz.

Deitu 622 197 909 telefonora.

IGORREN BERBALAGUN BILA

Astean ordubete euskeraz berba egiteko aukerea! Ikasten dagozanak lagundu gura badozuz edo euskeraz erreztasuna lortu, deitu 688 802 373 telefonora edo mezua bialdu euskera@igorre.net helbidera.

ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezua bat. begitu@topagunea.com bat. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mari Kixkur eta hiru hartzak* antzezlanerako.

Lorea Arribas (Igorre)
Aimar Gorospe (Dima)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Sully* filmarako.

Josepxu Iturriaga (Areatza)
Iñigo Aranbarri (Lekeitio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14

urte eta ehundaka lagun.

begitu
arratia ubide zeberio

ez da debalde



2017

Argazkia: Oriol Fernández Martí.

**Zorionak!
Urte barri on!**

"Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean,
begirada osoan begituten beti". Gontzal Mendibil